

BEZEROAREKIKO

HARREMANAK

ROOMPAINT 

Bezeroarekiko harremanen atalean, webgunean sarrera bat egongo da. Bertan korreoa edo eta telefono zenbakia aurkitu ahal izango dute eta produktuak edozein akats badu gurekin kontaktuan jarri eta arazoa konpontzen lagunduko diegu.

Arazoa funtzionamenduari buruzkoz bada, webgunean Roompaintek nola funtzionatzen duen jakin ahal izango dute. Bertan, instrukzioak eta bideo orientatzaileak aurkituko dituzte.

Arazoa zehatzagoa bada, hau da, produktuak akatsen bat edukiko balu, guri bidali eta azertu ondoren erantzuna emango diogu. Akatsa bezeroak eragindakoa bada, bueltan bidaliko diogu. Akatsa berriz, ekoizpen prozesuan eman bada, beste unitate berri bat bidaliko diogu eta erosleak bidalitako ale defektuosoak konpontzen saiatuko gara.

Arazo bat izatekotan, 10:00tik 13:00ra eta 16:00tik 21:00etara zerbitzu online bat egongo da non gure langile batek, edozein zalantza argitu ahal izango duen.

Bezeroek, Roompaint erosten dutenean posta elektronikoz jasoko dute gure produktuari buruzko informazio gehigarri edo eta lagungarria den edozer.

Web gunea egunero izango da eguneratua, informazio berriak zintzilikatu egingo dira. Korreoa sartzen badute, bezeroei jakinarazi egingo zaie egiten diren ekintza edo berri guztietaz mezu baten bitartez, adibidez, produktuan beharpenak badaude.

Roompaintek sare sozialetan kontua izango du eta jendeak jarraitu izan ahal izango du. Bertan denetarik izango da. Ekoizpenaren xehetasunak, makinaren argazkiak, funtzionamenduaren bideoak... Bertatik ere gurekin harremanetan jartzeko aukera izango dute

Sare sozialetan presentzia haundia lortzeko web orri bat dugu, Roompaint izenekoa. Honetan, produktuaren argazki ugari zintzilikatuko ditugu astero. Bideo txikiak ere

zintzilikatuko ditugu iragarki motzak balira bezala. Gure lokalean elkartuko gara ostiralero aste hortako lana egiteko publizitateari buruzko lana gure web orria indartzeko. Gure Lokalean argazki kamara profesionalakin argazkiak eta bideoak egingo ditugu gure produktuari.

Ez dugu ahaztu behar kontu hori aprobetxatuz roompainten promozioak, hitzaldiak etabarretaz informatuko dizuegula. Influencer batzuekin kolaboratuko dugu, adibidez; Paula Gonu, Dulceida, el rubius... gure produktua ezaguna egiteko. Hauen bidez zozketa ugari egingo ditugu.

Hitzaldiak, lokalean izango dira eta web orrian jarriko dugu hitzaldiak egon behar den bakoitzean. Gure erosleetako batek dudaren bat balin badu web orrian galdetu ahal izango du. Han gmail kontua daukagu horretarako. Zalantza argitzen ez baduzu, laguntzeko gure dendan eroslearekin elkartuko gara.

Beste sare sozial batean ere kontu bat sortuko dugu. Sare sozial hori Youtube izango da. Astero kanalera bideo bat igoko dugu. Gutako edozein roompaint erabiltzen azalduko da. Modu honetan produktua promozionatuko dugu.

Web orrian zozketak egingo ditugu. Irabazleei beraien etxeak berrituko dizkiegu. Hori grabatu eta kanalera igoko dugu. Aurretik duen itxura eta ondoren roompaint erabilia izango duen itxura konparatuz. Horrela erosle gehiago erakarriko ditugu gure produktua ezagutzeko.